

FUNTSEZKO JARDUERAK



IRAUN proiektuak funtzionatzeko hainbat jarduera bete beharko ditu, betiere bezeroei erantzun bat emateko asmotan

- **Ekoizpeneko jarduerak:**

- IRAUN proiektuan, zerbitzu bat izaki, askotan beteko ez den jarduera da, izan ere, behin web-gunea sortuta eta denda fisikoa lortuta, produzitzeko guztia eginda egongo litzateke. IRAUNen beste enpresa batzuetako produktuak egongo dira eskuragarri, eta hauek arduratuko dira ekoizteaz.

- **Arazoak konpontzeko jarduerak:**

- Web-orriaren ardura duenak, web-guneak izan ditzaken akatsak konpondu beharko ditu, edota berrikuntzaren bat egin. Bezeroen arretari dagokionez, egokia ez baldin bada, web orrialde horretan beraiekiko harremana hobetzeko bidea hobetu beharko du, eta bezeroei erraztasunak emateko bideak jarri beharko ditu.
- IRAUNek eskainiko dituen produktuak alokatzeko zailtasunaz gain, garraioak ere arazoak eman ditzake (biltegitik partikularenganako denbora oso luzea izatea, esate baterako), kasu batzuetan bezeroen haserrea eraginez. Horretarako, garraioaz arduratuko den enpresak arazo hori konpondu beharko du, bezeroaren lehentasuna kontuan izanik.
- Enpresan bezeroen eskura egongo diren gailuek arazo teknologikoak baldin badituzte, mantenuaz arduratuko den pertsonak konponbidea eman beharko die arazo hauei, gailu hori jasoko duen hurrengo pertsonak egoera onean aurkitu dezan.

- **Plataformako edo sareko jarduerak:**

- Web-gunearen kudeaketaz arduratuko den norbait egon beharko da, honek, bertatik egiten diren eskariak jasoko ditu, eta hauek era egoki batean antolatu, ondoren garraioaz arduratuko denak etxeetara eraman ditzan jendeak aurretik egindako eskariak.
- IRAUNek izango duen denda fisikoan ere langile batek egon beharko du, bertaratzen diren bezeroei jaramon egiteko.
- Garraioaz arduratuko den enpresa bat ere egongo da (Seur), egoten diren eskariak etxeetara eraman ahal izateko.
- IRAUNek izango dituen gailuak egoera onean mantentzeko, etxe ofizialarekin harreman zuzena izango du, eta hauek noizean behin, gailu guztiak aztertuko dituzte eguneraketaren bat edo egiteko eta arazoak dituzten gailuak konpontzen saiatuko dira.
- Irabazien kudeaketaz arduratuko den langile bat ere izango du IRAUNek, prezio kontuak aztertuko dituena, eta irabazitako diruaren kudeaketa egingo duena.

